

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdia.

2018ko azaroaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Udaltzarak onartu zituen gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoaren aldaketa (2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 33 zk.).

Bost diru-laguntza lerro hauek arautzen dira oinarri horietan, horien artean Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko diru-laguntzak.

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia onartzea. Diru-laguntzak 2020. urtean emango dira, norgehiagoka araubidez.

Bigarrena. Dagozkion gastuak onartzea, gehienez ere zenbateko hauetan:

- Partida: 1 0503.481.06.231.81.2020.
- Gastua: 6.000,00 euro.

Hirugarrena. Deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Zarauz, 2020ko abuztuaren 10a.—Xabier Txurruka, alkatea. (4155)

Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia 2020.

Xedapen hauek ezartzen dituzte oinarri arautzaileak:

* Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2018ko abenduaren 3ko Gipuzkoa ALDIZKARI OFIZIALA, 232 zk.).

* Gizarte-Zerbitzuetako diru-laguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoa ALDIZKARI OFIZIALA, 33 zk.).

- Helburua.
- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.
- Eskerak.
- Proiektuen betebeharrak.
- Dirulaguntza emateko prozedura.
- Balorazio irizpideak.
- Instrukzioa.
- Ebazpena.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Dirulaguntzaren ordainketa.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

Convocatoria de subvenciones a proyectos de educación para la transformación social en el propio municipio de Zarautz.

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el 29 de noviembre de 2018 acordó aprobar inicialmente la modificación de las bases específicas para el otorgamiento de subvenciones de servicios sociales (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 18 de febrero de 2019).

Son cinco las líneas de subvenciones que se regulan en esas bases, entre ellas las subvenciones a proyectos de educación para la transformación social en el propio municipio de Zarautz.

A propuesta del Departamento de Servicios Sociales, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria del año 2020 para el otorgamiento de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a proyectos de educación para la transformación social en el propio municipio de Zarautz.

Segundo. Aprobar los correspondientes gastos por los siguientes importes máximos:

- Partida: 1 0503.481.06.231.81.2020.
- Gasto: 6.000,00 euros.

Tercero. Publicar la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Zarauz, a 10 de agosto de 2020.—El alcalde, Xabier Txurruka. (4155)

Convocatoria de subvenciones a proyectos de educación y sensibilización para la transformación social en el propio municipio de Zarautz 2020.

Disposiciones que establecen las bases reguladoras:

* Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Zarautz (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 232, de 3 de diciembre de 2018).

* Bases Específicas para el otorgamiento de subvenciones de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 18 de febrero de 2019).

- Objeto.
- Requisitos para la concesión de subvenciones.
- Solicitudes.
- Requisitos de los proyectos.
- Procedimiento de concesión.
- Criterios de valoración.
- Instrucción.
- Resolución.
- Cuantía de la subvención.
- Abono de la subvención.

- Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.
- Dirulaguntzaren xedea justifikatzea.
- Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
- Publizitatea.
- Araudia.
- Errekurtsoak.

1. Helburua.

Deialdi honen helburua da eraldaketa sozialerako heziketa proiektuak egiteko norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren diru-laguntzak arautzea. Proiektu horiek tresna egokiak izango dira gizartearen baitan kontzientzia kritikoa sortzeko, eratzunkidetasun eta hiritartasun unibertsalaren ideiatik abiatuta; eta herritarrak mobilizatzea eta herrien nahiz pertsonen emantzipaziorako ekimen eta esperientzia eraldatzaileak martxan jartzea sustatuko dute.

Sentsibilizazioa indartuko duten ekintzak lagunduko dira. Hor sartzen dira kontzientzia kritikoa sortzeko Zarauzko gizarte osoari zuzendutako ekintzak. Desberdintasun ekonomiko, sozial, politikoa, kultural eta generokoaren egiturazko arrazoiak agerian utziko dira, tokikoaren eta orokorraren arteko loturatik abiatuta. Eta, aldi berean, tolerantziaren eta elkartzaren baliokak sustatuko dira, sorleku eta jatorri geografiko desberdineko pertsonen eta kulturen artean.

2. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko Gobernu Kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko Udalerriaren izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkaritza (egoitza soziala Eusko Jauriaritzaren elkartearen errolda nagusian inskribatuta).

Salbuespen gisa, udalerriarantz interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza ofizialik ez izan. Kasu horietan, alde aurretik oniritzia eman beharko du informazio-batzordeak.

Ezingo dute oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izan:

– Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

– 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritako ari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio, lan edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

– Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

– Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-jokeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

– Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio, lan edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Erakundeek, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. Eta agiriok eskuratu ezin direnean, horien ordez, aitorpenarenak aurkez daitezke.

- Plazo de ejecución y de justificación.
- Justificación del destino de la subvención.
- Dotación y partida presupuestaria.
- Publicidad.
- Normativa.
- Recursos.

1. Objeto.

Es objeto de esta convocatoria regular la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva para proyectos de educación para la transformación social. Estos proyectos son una herramienta para generar conciencia crítica en la sociedad a partir de la idea de corresponsabilidad y ciudadanía universal, fomentando la movilización ciudadana y la puesta en marcha de iniciativas y experiencias transformadoras, destinadas a la emancipación de pueblos y personas.

Se consideran proyectos subvencionables las acciones que potencien la sensibilización, que abarca todas las acciones dirigidas a la sociedad de Zarautz, para la creación de conciencia crítica, desvelando las causas estructurales de las desigualdades económicas, sociales, políticas, culturales y de género, a partir de la vinculación entre lo local y lo global, y promoviendo los valores de la tolerancia y la solidaridad entre seres humanos y culturas de diferentes orígenes y procedencias geográficas.

2. Requisitos para la solicitud de subvenciones.

Podrá solicitar las subvenciones cualquier asociación, organización o institución No Gubernamental con personalidad jurídica, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de estas bases y tengan su sede central o delegación legalmente constituida (domicilio social registrado en el registro de asociaciones del Gobierno Vasco) en el Municipio de Zarautz.

Con carácter excepcional también podrán ser objeto de ayudas aquellos proyectos de cooperación considerados de interés para el municipio, aunque la organización o institución solicitante no tenga representación oficial en Zarautz. En ese caso, se requerirá de la conformidad previa de la Comisión Informativa correspondiente.

No podrán obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones reguladas en esta convocatoria:

– Las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

– Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

– Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

– Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

– Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el derecho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminado por razón de sexo (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

La justificación por parte de las entidades de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable.

Zarauzko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailean agertzen diren baldintzez gain, beste hau ere bete beharko dute erakunde horiek: euren helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako egitura eta gaitasun eraginkorra izatea, eta proiektuan hori behar bezala ziurtatzea.

3. Eskaerak.

Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren urteko deialdian ez hazten den eskabide ofizialaren eredia betez egingo da eskaera, eta hilabeteko epean aurkeztu behar da deialdia hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaera Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez egin ahal izango da:

<https://uzt.Gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do?ayto=079&aytoE=079&elem=11604>.

Edo, bestela, Udalaren Erregistro Orokorrean (Etxezabala, Kale Nagusia 29), astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan 07:30etik 15:00etara, eta ostegunetan 07:30etik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Eskariak aurkezteak, deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

Proiektuak, II. eranskineko inprimaki ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko da:

– Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.

– GGKEa edo Elkarte, dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.

– Behar izanez gero, Zarautzen legalki osatutako ordezkari duela frogatzen duen agiria.

– Aurreikusten diren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua. Eskariaren xede diren ekintzengatik beste edozein laguntza zertan den adieraztea (emanda zein tramitean). II. eranskinaren bukaera.

– Zinpeko aitortpena, Euskal Administrazio Publikotik diru-laguntzaren bat jaso ondorengo betebeharrak ez betetzeagatik ez dela zigortua izan adieraziz. IV. eranskina.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udal eta bere Erakunde Autonomoarenak bete direla egiaztapen ziurtagiriak.

Betebehar horiek bete izanaren egiaztapena errazteko, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearan egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagokien egiaztapenak ekarri beharko. VI. eranskina.

– Zinpeko aitortpena, adierazten duena, batetik, sexuaren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez duela sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik. V. eranskina.

– Entitate eskatzailearen Estatutuak, lehendik jada Udalari entregatu bazaizkio izan ezik, baina estatutuak zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

– Ikastetxeen Bermea, hezkuntza sistemari zuzendutako proiektuen kasuan.

Las mencionadas organizaciones deberán, además de reunir los requisitos contemplados en la Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zarautz, disponer de la estructura suficiente y de la capacidad operativa necesaria para garantizar el cumplimiento de sus objetivos, acreditándolo debidamente en el proyecto presente.

3. Solicitudes.

Las solicitudes deberán formalizarse cumplimentando el modelo de instancia oficial que se determine en la convocatoria anual del Departamento de Servicios Sociales y deberán presentarse en el plazo de un mes contando a partir del día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La solicitud podrá realizarse en los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Zarautz:

<https://uzt.Gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do?ayto=079&elem=11604>.

O, si no, en el Registro General del Ayuntamiento (Etxezabala, Kale Nagusia 29), los lunes, martes, miércoles y viernes de las 07:30 a las 15:00, y los jueves de las 07:30 a las 15:00 y de las 17:00 a las 19:00.

La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra expresa de todas las condiciones contempladas en esta convocatoria.

Los proyectos objeto de subvención se presentarán según el formulario descrito en el anexo II.

Se acompañará a la solicitud la siguiente documentación:

– Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.

– Fotocopia de la inscripción de la ONGD o Asociación en el registro correspondiente.

– En su caso, acreditación de poseer delegación legalmente constituida en el Municipio de Zarautz.

– Presupuesto de ingresos y gastos previstos. También situación que se encuentra (concedida o en trámite) cualquier otra ayuda por las acciones objeto de la solicitud. Al final del anexo II.

– Declaración jurada haciendo constar que no ha sido sancionado por el incumplimiento de las obligaciones derivadas de la recepción de una subvención de la Administración Pública Vasca. Anexo modelo IV.

– Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Zarautz.

Para facilitar la acreditación del cumplimiento de estas obligaciones, la persona o entidad solicitante podrá incluir en la solicitud la autorización para que el órgano concedente obtenga de forma directa la acreditación del cumplimiento de las mencionadas obligaciones a través de certificados telemáticos, en cuyo caso no deberá aportar las correspondientes certificaciones. Anexo VI.

– Declaración jurada de la persona que solicita la subvención, en la que deberá figurar expresamente que dicha entidad no discrimina por razón de sexo, ni en el proceso de admisión ni en su funcionamiento, así como que no ha sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo. Anexo V.

– Los Estatutos de la entidad solicitante, salvo que los mismos hubieran sido ya entregados con anterioridad al Ayuntamiento, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

– El Aval de los centros educativos, en el caso de los proyectos dirigidos al sistema educativo.

Eranskinak Udaleko web orrian daude.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

4. Proiektuen betebeharrak.

Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Nahikoa informazio eduki behar dute, helburu, emaitza, adierazle eta abarri buruz (eskaintzen den formularioaren arabera).

– Bideragarri eta koherente izan behar dute, identifikaziotik ebaluazioko irizpideetarako.

– Proiektuaren aurrekontu zehaztua eta egin beharreko gastuen programazioa sartu beharko da.

– Ikastetxeen Bermea, hezkuntza sistemari zuzendutako proiektuen kasuan.

– Aurkeztutako proiektua edo jarduera euskaraz edo elebitan gauzatuko da arlo guztietan (hedapenean eta jarduera bera gauzatzekoan ere bai). Elebitan egiten denean, euskara lehenetsiko da beti. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira, jatorriz, euskaldun ez diren hizlari, mahaikide eta antzerakoak, beren solasgaiak edo jatorriak hala eskatuko balu.

– 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardueretan euskararen erabilera bereziki zainduko da.

– Komunikazio ez-sexista erabiliko da dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan; ez da erabiliko emakumeak diskriminatzen dituen irudi edo estereotipo sexistarik; eta berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna, genero-rol eta identitate ugaritasuna helarazten duen irudia bultzatuko da.

5. Dirulaguntza emateko prozedura.

Diru-laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN utero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

Norgehiagoka prozedura bidez ematen diren diru-laguntzetan, lehenik, aurkeztutako eskaerak konparatzen dira; ondoren, lehenetsun-ordena jartzen da, hurrengo puntuan jasotako balorazio-irizpideen arabera; eta, azkenik, irizpideak aplikatuta balorazio handiena lortu dutenei diru-laguntza esleitzen zaie, kreditu eskuragarriaren barruan eta deialdian jarritako mugarekin. Beraz, jarduerak puntuazio-hurrenkeraren arabera jasoko dute diru-laguntza, aurrekontuaren mugak eta baliabideak kontuan hartuta.

6. Balorazio irizpideak.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Erakunde eskatzaileari buruzkoak (gehienez 30 puntu):

– Erakunde eskatzaileak eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio ekintzetan duen esperientzia (gehienez 10 puntu).

– Beste erakunde batzuekin batera eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio ekintzak egitea, eta helburu berarekin (gehienez 10 puntu).

– Erakunde eskatzaileak bere egoitza soziala Zarautzen izatea (gehienez 10 puntu).

Mezuaren edukiari buruzkoak (gehienez 35 puntu):

– Proiektuaren azalpena eta koherentzia orokorra (gehienez 15 puntu).

Los anexos están disponibles en la página web del Ayuntamiento.

Se admitirá un solo proyecto por cada entidad solicitante.

4. Requisitos de los proyectos.

Los proyectos presentados deberán cumplir los siguientes requisitos:

– Deberán contener suficiente información sobre los objetivos, resultados, indicadores, etc. conformes al formulario que se ofrece.

– Habrán de ser viables y coherentes, desde la identificación hasta los criterios de evaluación del mismo.

– Deberán incluir el presupuesto detallado del proyecto y la programación de gastos a efectuar.

– El Aval de los centros educativos, en el caso de los proyectos dirigidos al sistema educativo.

– El proyecto o actividad presentada se desarrollará en euskara o en bilingüe en todos sus apartados (en la publicidad y en el desarrollo de la actividad). Cuando se desarrolle en bilingüe, se dará prioridad al euskara. Quedan excluidos del cumplimiento de este criterio los y las conferenciantes que no sean euskaldunes siempre y cuando el tema a desarrollar o su origen lo justifiquen.

– Se cuidará de forma especial el uso del euskera en las actividades organizadas específicamente para los niños y niñas, adolescentes y jóvenes menores de 18 años.

– Se utilizará una comunicación no sexista en toda la documentación, publicidad, imágenes o materiales; evitar cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres; y fomentar una imagen que transmita valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, diversidad de roles e identidades de género.

5. Procedimiento de concesión.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva y se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tendrá consideración de concurrencia competitiva el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en el siguiente punto; y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los criterios. Por lo tanto, sólo se subvencionarán las actividades en orden a su puntuación y atendiendo a las limitaciones y disponibilidades presupuestarias.

6. Criterios de valoración.

Se seleccionarán los proyectos que serán aprobados teniendo en cuenta los siguientes criterios y límites de valoración (hasta un máximo de 100 puntos). Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionados.

En relación a la entidad solicitante (hasta 30 puntos):

– Experiencia de la entidad solicitante en materia de acciones de sensibilización en educación para la transformación social (hasta 10 puntos).

– Realizar acciones de sensibilización en educación para la transformación social junto con otras entidades y con un mismo fin (hasta 10 puntos).

– Que la entidad solicitante tenga su sede social en Zarautz (hasta 10 puntos).

En relación al contenido del mensaje (hasta 35 puntos):

– Exposición y coherencia general del proyecto (hasta 15 puntos).

– Errefuxiatuen problematikari heltzen diona (gehienez 6 puntu).

– Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaurgarriagoan daudenentzako eta/edo diskriminazio – edo bazterkeria-egoeran daudenentzako proiektua izatea. (gehienez 4 puntu).

– Proiektuak lagun dezala xede biztanleriaren ohituretan aldatetarak bultzatzen (gehienez 5 puntu).

– Proiektuak indartu dezala giza eskubideen defentsa (gehienez 5 puntu).

Metodologiari buruzkoak (gehienez 25 puntu):

– Jardueran parte hartzen dute hegoaldeko herrialde pobretuetako edo gatazka-lekuetako proiektuetan sartutako pertsonak (gehienez 5 puntu).

– Zehaztasun osoz definitzen dira proiektuaren helburuak, adierazleak eta espero diren emaitzak, bai eta egiaztapen-iturriak ere (gehienez 5 puntu).

– Udalerriko beste erakunde edo entitate batzuen bermea dauka jarduerak (gehienez 4 puntu).

– Genero ikuspegia kontuan hartzen da (gehienez 7 puntu).

– Proiektua bukatu ondoren ere, haren heziketa eta elkartzaren ekintzaren jarraipena aurreikusi da (gehienez 4 puntu).

Aurrekontuari buruzkoak (gehienez 10 puntu):

– Aurrekontu banakatua, eta jarduera, bitarteko eta kostuen harreman egokia (gehienez 10 puntu).

7. Instrukzioa.

1. Hauek dira diru-laguntzaren emakida-prozedura tramitzeko eskumena duten organoak:

a) Instrukzioa (Instrukzio-Organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako Teknikaria.

b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.

2. Instrukzio-organok egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatze beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioaren emango zaio hasiera instrukzio faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela diru-laguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurrezko dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organok eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean jarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organok behar bezala arrazoituta behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

– Que aborde la problemática de las personas refugiadas (hasta 6 puntos).

– Que sean actividades o proyectos dirigidos a mujeres con problemáticas especiales, que estén en situación de vulnerabilidad o/y que estén en situación de especial discriminación o exclusión (hasta 4 puntos).

– Que el proyecto contribuya a fomentar cambios de hábitos de la población destinataria (hasta 5 puntos).

– Que el proyecto promueva la defensa y el fortalecimiento de los derechos humanos (hasta 5 puntos).

En relación a la metodología (hasta 25 puntos):

– Que participen en la actividad personas involucradas en el proyecto en los países empobrecidos del sur o zonas en conflicto (hasta 5 puntos).

– Se definen con precisión los objetivos, indicadores, resultados esperados del proyecto y fuentes de verificación (hasta 5 puntos).

– La actividad viene avalada por distintas asociaciones o entidades del municipio (hasta 4 puntos).

– Incorporación del enfoque de género (hasta 7 puntos).

– Se contempla la continuidad de la acción educativa o solidaria una vez finalizado el proyecto (hasta 4 puntos).

Presupuesto (hasta 10 puntos):

– Desglose presupuestario y relación adecuada de actividades, medios y costes (hasta 10 puntos).

7. Instrucción.

1. Los órganos competentes para la instrucción del procedimiento de concesión de la subvención son los siguientes.

a) Instrucción (Órgano Instructor): Técnico/a adscrito/a al Departamento de Servicios sociales.

b) Órgano colegiado: integrado por los miembros de la comisión correspondiente.

2. El órgano instructor realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

3. La fase de instrucción se iniciará con la pre evaluación de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de la persona solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

4. El órgano instructor realizará la evaluación de las solicitudes, de acuerdo con los criterios de valoración establecidos en la convocatoria.

5. Una vez evaluadas las solicitudes, el órgano colegiado deberá emitir informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada.

6. El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados.

Se podrá prescindir de éste trámite de audiencia cuando no sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados. En este caso, la propuesta de resolución formulada tendrá el carácter de definitiva.

7. Cuando la evaluación efectuada resulte desfavorable respecto de la concesión de subvención, de modo previo a dictar la resolución definitiva correspondiente, se otorgará a los interesados trámite de audiencia por plazo de 10 días para formular alegaciones.

8. Ebazpena.

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatetzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezi-fikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, diru-laguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: diru-laguntzaren xedea, diru-laguntza eskuratuko duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri espezi-fiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurtso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

4. Gehienez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren bihar-munetik hasiko da kontatzen epe hori.

5. oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziozko egintzak ezeztatzaileak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenekin bat etorrira egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako diru-laguntzak.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da 2.500,00 eurotik gorakoa izan.

Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren % 100ekoa izango da. Kasu berezietan, eskatutakoa baino kopuru txikiagoa ere eman dezake Udalak, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta justifikatutako arrazoiengatik, baldin eta horrek jardueraren bidegarritasuna kolokan jartzen ez badu.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-konsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehen-tasun-ordena jartzea.

10. Diru-laguntzaren ordainketa.

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunei erreparatuta, zenbatekoaren % 70 diru-laguntza ebazten denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Dena den, ordainketak aurreratu ahal izango dira (diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako moduan), baldin eta aurretik justifikatzen bada finantzazio hori beharrezkoa dela diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko.

8. Resolución.

1. La resolución corresponderá a Alcaldía o, por delegación, a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz.

2. La resolución se motivará de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones debiendo, en todo caso, quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen las correspondientes subvenciones.

3. En la resolución de concesión de la subvención se deberá hacer constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a quienes se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones. Igualmente, en la resolución se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará a partir del día siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria.

5. En relación con el procedimiento de concesión de las subvenciones objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

6. La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el mismo. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Zarautz.

9. Cuantía de la subvención.

La cantidad a subvencionar a cada uno no podrá superar los 2.500,00 euros.

El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 100 % de la subvención solicitada. En casos especiales, el Ayuntamiento podrá conceder una cantidad inferior al importe solicitado, tras el análisis de los gastos propuestos y por motivos justificados, siempre que por esa causa no se ponga en peligro la viabilidad de la actuación.

Las subvenciones a aprobar podrán ser minoradas en un porcentaje idéntico para todas ellas para permitir incluir entre los proyectos seleccionados algún último para el que (o los que) la consignación presupuestaria disponible solo alcance su cobertura parcial.

En caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender a todas las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos, no hará falta establecer el orden de prelación que conlleva el procedimiento de concurso.

10. Abono de la subvención.

Atendiendo a las peculiaridades de las acciones a subvencionar mediante esta convocatoria, se podrá abonar el 70 % del importe en el momento de la resolución de la subvención y el 30 % restante a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación.

No obstante lo anterior, y previa justificación de la necesidad de financiación para llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, podrán realizarse pagos anticipados en la forma en que se determine en la correspondiente resolución de concesión.

11. *Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.*

Diru-laguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta gehienez urtebeteko iraupena izango du, diru-laguntza hartzen denetik kontatzen hasita, nolana ere justifikazioa 2021eko maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

12. *Diru-laguntzaren xedea justifikatzea.*

Udaleko Ordenantza Orokorraren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko diru-laguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagokion guztiak (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den diru-laguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako diru-laguntza.

Justifikatzeko, Justifikazio Kontu Sinplifikatua erabili ahaliko da, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:

– Diru-laguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete dira justifikatzeko jarduera-memoria bat; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan.

– Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren aitorpen arduratsua, honakoak adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Diru-laguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen aitorpen arduratsua, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen eta horietatik sortutako interesen itzuleraren ordainketa-gutuna.

«Moneta-unitateak» izeneko lagin-teknikaren bidez egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, diru-laguntzaren aplikazio egoikiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafikiko juridikoan, erregelamendu bidez jarritakoaren arabera.

Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe.

13. *Zuzkidura eta aurrekontuko partida.*

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 6.000,00 eurokoa da, aurrekontuko 0503.481.06.231.81 2020ko partidan egoztekoa.

14. *Publizitatea.*

Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda.

Bestalde, diruz lagundutako edonolako programa, jarduera, inbertsio edo ekimenaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du diru-laguntzaren onuradunak (euskaraz).

11. *Plazo de ejecución y de justificación.*

El proyecto habrá de iniciarse en el año de la concesión de la subvención y su duración en cualquier caso no será superior a un año contado desde la recepción de la subvención. En todo caso, la justificación se deberá presentar antes del 31 de mayo de 2021.

12. *Justificación del destino de la subvención.*

Tal y como se establece en el artículo 22.1.d) de la Ordenanza General del Ayuntamiento, la persona beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos e ingresos (en el caso de subvenciones para la realización de la actividad anual) o los correspondientes a la totalidad de una actividad o programa específico (en el caso de que se conceda una subvención para la realización de una determinada actividad o programa). Por lo tanto, se deberá justificar el 100 % del proyecto, actividad o programa subvencionado. En caso de que los gastos justificados fueran menores que los presupuestados, la subvención concedida se minora en el mismo porcentaje.

Para la justificación se podrá optar por la Cuenta Justificativa Simplificada, tal y como se establece en el artículo 75 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y ésta contendrá la siguiente información:

– Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

– Una relación responsable del abono de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

– Una declaración responsable, de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

– En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

A través de la técnica de muestreo llamada «Por unidades monetarias» se comprobarán los justificantes de gasto pertinentes a fin de obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

En todo caso, los justificantes de gasto serán justificantes originales del gasto realizado y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, en los términos establecidos reglamentariamente.

La memoria justificativa de la subvención se redactará prioritariamente en euskera, sin perjuicio del derecho de los o las interesadas de hacerlo en una de las dos lenguas oficiales.

13. *Dotación y partida presupuestaria.*

La cantidad máxima destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones es de 6.000 euros imputables a la partida presupuestaria 0503.481.06.231.81 2020.

14. *Publicidad.*

La relación de subvenciones concedidas será publicada en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios municipal.

Por otro lado, la persona beneficiaria de subvenciones deberá dar publicidad en euskera al carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación de cualquier tipo que sea objeto de subvención.

15. Araudia.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2018ko abenduaren 3ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 232. zk.) eta Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 33. zk.).

16. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.

15. Normativa.

En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* 25 de julio); la Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zarautz (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 232, de 3 de diciembre de 2018) y Bases Específicas para el otorgamiento de subvenciones de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 18 de febrero de 2019).

16. Recursos.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.